



## Kultura Sailak AFaren 2019ko literatur sariak ebatzi ditu; 1400 parte hartzaile izan dira, iaz izandakoen bikoitza

Antonio Tocornalek eta Maite Arrutik irabazi dute gaztelaniazko eta euskarazko Ignacio Aldecoa saria; Juan Carlos Castellók eta Oskar Gazteluk Becerro Bengoa saria, eta Jesús Aguilarrek eta Iñaki Odriozolak, berriz, Ernestina Champourcín saria

2020ko lehenengo hiruhilekoan banatuko dira sariak gala batean

**Gasteiz, 2019ko azaroaren 26a.** Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailak 2019ko literatur sariak ebatzi ditu. Antonio Tocornal Blancok eta Maite Arruti Arakistainek irabazi dituzte XLVIII. Ignacio Aldecoa ipuin laburren lehiaketako gaztelaniazko eta euskarazko sariak, hurrenez hurren. Juan Carlos Castelló Meliák eta Oskar Gaztelu Bilbaok eskuratu dituzte XXXI. Becerro Bengoa saiakera lehiaketako sariak, eta Jesús Aguilar Marinak eta Iñaki Odriozola Susaetak, berriz, XXX. Ernestina Champourcín poesia lehiaketakoak. Aurten, iaz izandako parte hartzaileen bikoitza izan da (627 iaz, 1.401 aurten), lehen aldiz Internet bidez aurkeztu ahal izan baitira lanak. Sariak banatzeko gala egingo da 2020ko lehenengo hiruhilekoan, sariketei ikusgarritasun handiagoa emateko.

Ignacio Aldecoa ipuin lehiaketari dagokionez, aurten XLVIII. edizioa izan da, eta 960 lan aurkeztu dituzte gaztelaniaz, 2018an baino 473 gehiago. Horien guztien artean, San Fernandoko (Cadiz) Antonio Tocornal Blancok irabazi du saria, *En el paréntesis del mundo* lanarekin. “Fantasia bat balitz bezala, banatu berria den gizon bat apartamentu berri, txiki, funtzional batera doa bizitzera, eta poliki-poliki konturatzen da apartamentua handitzen ari dela, ia neurgaitza izateraino. Hori guztia estilo soil eta eraginkorrean dago kontatua, poesiaz betetako hizkuntza eta irudi zehatzak erabilia”.



# Prentsa Oharra Nota de Prensa

Euskarazko ipuinik onenaren saria Zarauzko Maite Arruti Arakistainek irabazi du, *Ezin bizitzari ihes egin* lanarekin. “Gizon gazte bat hil ala biziko atekan dago, noiz mundu hau utziko. Ipuina kontatzeko ikuspegia gaztearen da, gela batean dago eta bere begien aurretik mundu txiki eta neurritsu bat ikusten du pasatzen. Badakigu auto istripu bat izan duela, Tolosako inauterietara joateko zela. Bizitzaren eta heriotzaren arteko une hori da kontatzen diguna, elegantzia handiz eta hizkuntza aberats eta irudiz ondo hornitutako baten bidez”. Atal honetan 27 lan aurkeztu dituzte, 2018an baino bat gehiago.

XXXI. Becerro de Bengoa saiakera lehiaketako saridunak ere aukeratu dituzte. 67 lan aurkeztu dituzte gaztelaniaz (2018an baino 47 gehiago) eta hiru euskaraz (2018an bost izan ziren).

Gaztelaniazko atalean, Vall d’Uixóko (Castelló) Juan Carlos Castelló Meliák irabazi du saria. “Saiakera memoriaren justiziari buruzko da. Idazkiaren xedea da koordinatu batzuk zehaztea, herritar kritikoak hezteko, herritar horiek tradizio demokratikotik edan dezaten”.

Euskarazko saria Larrabetzuko Oskar Gaztelu Bilbaoren *Nire bizitza ni barik* lanak eskuratu du. “Lan honen helburua gizakiok barnetik dugun ezinegonak, haserreak eta erruak ulertzeraz emateko ahalegina da. Norbere buruaren ezagutza jartzen du egileak helburu horren erdian”.

Azkenik, XXX. Ernestina Champourcin poesia lehiaketara 336 lan aurkeztu dituzte; 2018an, aldiz, 77 aurkeztu zituzten. Gaztelaniazko saria Madrilgo Jesús Aguilar Marinak eskuratu du, *La lluvia y la ceniza* lanari esker. “*La lluvia y la ceniza* laneko poemak mundu hondatu eta umezurtz bati buruzkoak dira (...*pesa el cielo como la soledad/ que en una tumba aguarda/..., nos dice el poeta*), lainoan dagoen mundua, ia-ia ametsetakoa, eta mundu horretan dabil gizona, esperantzarik gabe, erantzunik gabe, jainkoek ahaztua. Maila formalean, iruditeria indartsua nabarmendu behar da (oihartzun gotiko eta erromantikoak), eta kulturalismo arina, zeinak hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko hamarkadetako Espainiako poesia egilerik ezagunenetako batzuk gogorarazten baititu (Brines, Colinas, Carnero)”.

Euskaraz zortzi lan aurkeztu dituzte (2018an hamabi izan ziren) eta irabazlea Elgoibarko Iñaki Odriozola Susaeta izan da, *Teilatupetik* lanagatik. “*Begirada garbia du Teilatupetik poema bildumak. Egunerokotasunean murgildua den hiriaren argazki sotilak dira. Alabaina, hiri bazterrak begiratu gabe, ohikoak diren objektu eta egoeretatik irudi pertsonala eta egitua eskaintzen du poetak*”.



▶ Arabako Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Álava  
▶

[www.araba.eus](http://www.araba.eus)

# Prentsa Oharra Nota de Prensa